



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 7a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailan banatu den gaztelaniazko Zientzia Sozialen liburuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, PAI-Ingelesez Ikasteko Programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroan ETB hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, azken hamabost urteetan segurtasun kidego desberdinek Nafarroan atxilotutako pertsonen eta argitutako delituen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, gizarteratze errentarako eskaeren balorazioa dela-eta erantzuteko eta errenta emateko epeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, Osasunaren zorra dela-eta. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, baztertze arriskuan dauden familiei etxebizitzaren funtzionamen-durako oinarrizko hornidurak bermatzeko laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidean egin gabe dauden faseek ukitutako herrietako alkateekin izandako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Alesbeseko “El Castellar” ikastetxe publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Larraungo Gabari etxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Justizia Ministerioarekin Justizia Administrazioaren hobekuntza teknologikorako sinaturiko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako batzorde klinikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 9. artikulua betetzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, laneko osasun plan berri bat prestatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 7.1. artikulua betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Alesbeseko “El Castellar” HLHIPari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, enpresen likidezia arazoak konpontzeko bide berriei eta finantzaketa iturriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen Iruñeko haur eskolei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Beriaingo udalerriko hezkuntza-azpiegiturako beharrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren irizpideei buruzkoa, irakasleen ordezkapenari dagokionez. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen maiatzaren 3ko 189/2004 Foru Dekretuaren aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean ezarritako betebeharrak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoak 2016rako aurreikusita dituen lan eskaintza publikoaren deialdiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, sinbologia frankista erretiratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, jakitekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak zinemagintza sustatu eta gartzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutzako Patronatuaren osaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuako kideen ondasun aitortpenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailan banatu den gaztelaniazko Zientzia Sozialen liburuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailan banatu den gaztelaniazko Zientzia Sozialen liburuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 2ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-15-PES-00071 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Garesko Ikastetxe Publikoak 2015eko ekainean, 2015-16 ikasturteari begira, lehen hezkuntzako 5. mailarako Anaya argitaletxearen Euskadiko edizioa aukeratu zuen, soilik Nafarroakoa argitaratu gabe zegoelako.

Hala eta guztiz ere, udan zehar, Anayak Nafarroako edizioa egitea lortu zuen.

Horrenbestez, Garesko Ikastetxe Publikoak erabaki zuen, aipatu argitaletxearekin ados jarrita, 2015-16 ikasturtearen hasierarako liburuak aldatzea.

Horrenbestez, honako hau da Garesko Ikastetxe Publikoko 5. mailan erabiltzen den liburua:

Ciencias. Sociales 5, Anaya. Serie: Aprender es crecer en conexión. Edición Navarra. ISBN: 978-84-678-5002-4.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 2ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-15-PES-00072 informazio-eskaera egin du, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza bereziko zentro berri bat eraikitzeiko daukan aurreikuspenari buruzkoa. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren INFORMAZIOA:

“Andrés Muñoz Garde” hezkuntza bereziko ikastetxe publiko berri bat eraikitzeiko proposamenaren 2014ko ekainaren 3ko aurreproiektua dela eta, honako gogoetak egin behar ditugu:

– 2011-2012 ikasturtean zehar, Hezkuntzako kontseilariak bilera baterako deia egin zuen. Hartan, Hezkuntza Departamentuko teknikariak eta

“Andrés Muñoz Garde” hezkuntza bereziko ikastetxe publikoko zuzendaritza-taldea egon ziren, datozen urteetarako ibilbide-orria eta jarduketak ezartze aldera.

– Lehenengo jarduketa 2012-13 ikasturtean egin zen, ikastetxearen ondoko bi ikasgela, NHBBZrenak, egokitu baitziren.

– 2014. urtean, ikastetxeari behar ziren tokiak emate aldera, NHBBZ osoa José Vila Ikastetxe Publikora eraman zen.

– Hori gorabehera, hezkuntza berezirako ikastetxe publiko berri baterako aurreproiektua egin duen lantaldeak dio beste eraikin bat egin beharra dagoela, ikasle kopuruari eta ikasle horien beharrian eta ezaugarriei hobeki egokitua.

Hori guztia dela eta, departamentu honek aintzat hartzen du Andrés Muñoz Garde hezkuntza bereziko ikastetxe publiko berriaren aurreproiektua egin duen lantaldearen proposamena, proposamen hori sakonki aztertuko du eta, dauzkan baliabide eta lehentasunen neurrian, ahaleginak egingen ditu, epe luzera, beste zentro bat eraikitzeiko eskaerari erantzuteko

Iruñean, 2015eko urriaren 28an.

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria José Luis Mendoza Peña

Galdera, PAI-Ingelesez Ikasteko Programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, PAI-Ingelesez Ikasteko Programari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 2ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek 9-15-PES-00073 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Galderaren 1, 2 eta 3. puntuei dagokienez, PAI/PALE –ingelesez ikasteko programa/atzerriko hizkuntzen irakaskuntza programa– baloratzeko eta hobetzeko planetik ateratako informazioa, ikasturte honetarako, erantsi dugu.

PAI/PALE BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PLANA – 2015/16

• Helburuak

=> Informazio-bilketa osoa eta sistematikoa, ikastetxe guztiei buruzkoa –hizkuntza-programa berariazkoak dauzkatenak eta ez dauzkatenak–, haien egungo egoera, prozesua eta ezarpen-egoera ezagutze aldera.

=> Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza programei buruzko azterlan teknikoen bilduma eta azterketa.

=> Informazio osoa eta sistematikoa jasotzea irakasleei, plantilletan duen eraginari, titulazio-mailei, jasotako prestakuntzari eta ekoiztako materialei buruz.

=> Ikastetxeetako ikasleek gaitasun-probetan izan dituzten emaitzei buruzko azterketa.

=> Interes-taldeei buruzko azterlan kualitatiboa: ikastetxeetako irakasleak eta zuzendaritza, senideak, ikasleak eta haien ordezkariak.

=> Lantaldeen antolamendua eta interes-taldeen arteko eztabaida:

– Ukitutako eragileen, eragile sozialen eta hezkuntza-eragileen artean gaiari buruzko azterlanak eta iritzi aditua jaso eta jakitera ematea.

=> Programaren hobekuntzari eta diseinuari buruzko proposamenen balorazioa eta idazketa.

• Ebaluatze metodoa

=> Ikerketa

=> Datu-bilketa

=> Jarraibideak

=> Ebaluazio diagnostikoetan emaitzen azterlanak egitea

=> Kanpoko enpresari buruzko azterlan soziologikoa

=> Sektore desberdinekiko topaketa

=> Lantaldeak

• Tresnak:

=> INFO-PAI (programari buruzko informazioa: ezarpena, helburuak, araudia, irakasleen prestakuntza, barneko zein kanpoko azterlan teknikoak)

=> DIS-PAI (interes sozialari buruzko diagnostikoa)

=> ECD-PAI (gaitasunen eta trebetasunen ebaluazioa)

=> Focus groups

• Aplikazio-egutegia

=> Lehenengo hiruhilabetekoa

– Plangintza

– Datu-bilketa

– Dauden datuen azterketa

– Eragileen azterketa kualitatiboaren antolaketa

=> Bigarren hiruhilabetekoa

– Eragileen azterketa kualitatiboa

– Lantaldeen antolaketa eta eztabaida

– Ondorioen eta gogoeten bilketa

– Hobetzeko proposamenak baloratu eta idaztea

– Programaren diseinua


• Ikastetxeak hautatzeko irizpideak

=> Laginak (Nafarroaren errealitate sozial eta linguistikoa ordezkatzeko dutenak)

=> Zentsalak

HELBURUAK	TRESNAK	EBALUATZEKO METODOA	EGUTEGIA
1. Ingelesez ikasteko programaren eta Nafarroan hedatutako beste programa batzuei buruzko barne informazioa aztertu eta biltzea. 2. Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza programei buruzko azterlan teknikoak aztertu eta biltzea.	INFO-PAI	Ikerketa, datu-bilketa eta jarraibideak	1. hiruhilekoa
3. Inpaktu sozialari eta interes taldeen asebetetze mailari buruzko diagnostikoa.	DIS-PAI	Honako hauetan datuak biltzea: Sektore desberdinekiko topaketak Kanpoko enpresa baten azterlan soziologikoa	1. hiruhilekoa
4. Proba diagnostikoen emaitzen azterketa	ECD-PAI	Lehen hezkuntzako gaitasun-probak	2. hiruhilekoa
5. Emaitzak baloratzea, hobetzeko proposamenak egin eta irakaskuntza-plan baterako diseinuaren proposamen-zirriborrea.		LANTALDEAK	2. hiruhilekoa

INFO-PAI
1. Barne-dokumentazioaren azterketa eta bilketa
2. Kanpoko azterlan teknikoaren azterketa



ECD-PAI

Galderaren 4. puntuari dagokionez –zenbat familia dauden behartuta beren seme-alabak beren bizilekutik kanpora eskolatzerara beren herrian PAI-Ingelesez Ikasteko Programa ezarrita daukan ikastetxerik ez dagoelako–, adierazi beharra dago Departamentuan ez dagoela jasota horri buruzko daturik. Matrikulazio prozesuan ez dago

inolako galdetegi ofizialik, ez eta bestelako dokumenturik ere, aipatutako datua jasotzen duenik.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria José Luis Mendoza Peña

Galdera, Nafarroan ETB hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan ETB hartzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatzizko galdera egin du Nafarroan ETB hartzeari buruz (9-15/PES-00075). Hauxe da horri

buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak Euskal Autonomia Erki-degoari Nafarroako Foru Komunitatearekiko errespetu instituzionala exijituko dio Nafarroan ETB hartzeari buruzko arazoa aztertzen denean, bi erkidegoen artean indarrean dagoen lankidetzaprotokolo orokorrean ezarritako moduan edo lankidetzaprotokolo horren etorkizuneko berrikuspenetan finkatzen den moduan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari eta Nafarroako Gobernuak eleuduna: Ana Ollo Hualde

Galdera, azken hamabost urteetan segurtasun kidego desberdinek Nafarroan atxilotutako pertsonen eta argitutako delituen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, azken hamabost urteetan segurtasun kidego desberdinek Nafarroan atxilotutako pertsonen eta argitutako delituen buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Iñaki Iriarte López jaunak idatziz erantzuteko galderak egin ditu honako gai hauei buruz (9-15/PES-00076): “Segurtasun kidegoetako bakoitzak zenbat pertsona atxilotu ditu Nafarroan azken hamabost urteetan, leporatu zaien delitu-motaren arabera?” eta “Segurtasun kidegoetako bakoitzak

zenbat delitu argitu ditu Nafarroan azken hamabost urteetan, delitu-motaren arabera?” Hauxe da Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Barne Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen otsailaren 17ko 400/2012 Errege Dekretuak 2.3 artikuluko a) letran dio Segurtasunerako Estatu Idazkaritzako Koordinazioaren eta Azterlanen Kabineteari honako eginkizun hauek dagozkiola, besteak beste:

Bigarrena. Kriminalitateari buruzko Estatistika Nazionala garatu, ezarri eta kudeatzea, Estatuko segurtasun indar eta kidegoetatik, polizia autonomikoetatik eta tokiko polizietatik bidezko diren datu guztiak batera bilduz.

Hirugarrena. Kriminalitatearen egoerari eta bilakaerari buruzko txosten estatistikoak aldizka egin eta zabaltzea.

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago Foruzaingoa, 2006. urtetik, Segurtasunerako estatu idazkariak Barne Ministerioan koordinatzen

duen Estatistika Kriminalaren Sistemaren sartuta dagoela.

Bestalde, Foruzaingoak, hilero, Segurtasunerako Estatu Idazkariaren Koordinazioaren eta Azterlanen Kabineteari igortzen dizkio atxilotutako pertsonen buruzko datuak, delitu-motaren arabera sailkatuta, bai eta argitu diren delituei buruzko datuak ere, Barne Ministerioak kriminalitateari buruzko datuen erregistroarako ezarritako metodologiari jarraituz.

Hori guztia dela eta, kontuan hartuta parlamentu-galderan eskatutako datuak Nafarroako segurtasun kidego eta indar guztien jarduerari buruzko-

ak direla eta, gainera, datu horiek Segurtasunerako Estatu Idazkaritzan erregistratuta daudela, logikoa dirudi haiek Koordinazioaren eta Azterlanen Kabineteari eskatzea, bera baita haiek jakitera emateko organo eskuduna.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

Galdera, gizarteratze errentarako eskaeren balorazioa dela-eta erantzuteko eta errenta emateko epeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gizarteratze errentarako eskaeren balorazioa dela-eta erantzuteko eta errenta emateko epeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatzizko galdera egin du (9-15/PES-00077) honako gai honi buruz informazioa eskatze aldera: "Gizarteratze errentarako eskaeren balorazioa dela-eta, zein ari da izaten erantzuteko eta errenta emateko epea, hala eskaera

berrien nola luzapen-eskaeren kasuan?" Hauxe da Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako lehendakariordeak horri buruz informatu beharrekoa:

Gaur den egunean (2015eko urriaren 19a), 2015eko abuztuaren 31ko eskaeren balorazioa amaitzen ari gara; hau da, erantzuteko epea 1,6 hilabetekoa da.

Epe hori ez da eskaera-motaren araberakoa (eskaera berria den ala errenta berritzekoa den), zeren eta eskaeren hurrenkeraren arabera jokatzen baita. Bi mota horien arteko aldeak dokumentazioaren berrikuspen-prozeduran dautza.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 28an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea. Miguel Laparra Navarro

Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, Osasunaren zorra dela-eta.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, Osasunaren zorra dela-eta. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak parlamentu-galdera egin du (PES-00078). Hauxe Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatzeko duena:

Galdera honen xede den geroratzea zailtasunak dituzten enpresentzako *minimis* erako lagun-

tzen kontzeptuan baimendu zen, ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legea gaiari buruzko Europako zuzentarueta egokitzeko arauak ematen dituen irailaren 10eko 185/2007 Foru Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian xedatuaren arabera, eta aplikatzekoa zaio Europako Batzordearen 1998/2006 Erregelamendua, abenduaren 15koa, Europako Ituneko 87. eta 88. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (DO L 379 de 28.12.2006).

Europako Batzordearen abenduaren 15eko aipatutako Erregelamendua (CE) aplikatzekoa denez, geroratze hori ez zegoen lotuta ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legeko 21. eta 22. artikuluetan jasotako jarduketei.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, baztertze arriskuan dauden familiei etxebizitzaren funtzionamendurako oinarrizko hornidurak bermatzeko laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin M.^a Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, baztertze arriskuan dauden familiei etxebizitzaren funtzionamendurako oinarrizko hornidurak bermatzeko laguntzei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko M.^a Isabel García Malo parlamentariak idatzizko galdera bat egin du (9-15/PES-00079), ondoren azaltzen dugun informazioa eskatzeko. Hona

Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna. Programa-akordio 3. atalean –Pobrezia energetikoa– esaten da “2015eko urria baino lehen etxebizitza batek funtzionatzeko oinarrizko hornigaia” bermatuko zaiela “gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dauden familiei”.

a) Urriaren 1ean ba al dago gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dagoen familiarik, bere etxebizitzan oinarrizko hornigaiak bermatu gabe dituenik?

b) Gizartetik baztertuta gelditzeko dagoen zenbat familiarik jaso du laguntzaren bat xede horrekin 2015eko uztailaren 23az geroztik?

c) Zer aurrekontu esleitu da horretarako?

d) Uztailaren 23ra arte ba al zegoen egoera horri aurre egiteko laguntzarik? Hala baldin bada, gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dagoen

zenbat familiak baliatzen du laguntza hori? Zer aurrekontu esleitu zen horretarako uztailaren 23az geroztik?

Lehena.- Aldez aurretiko gogoeta.

Planteatutako lau galdereri berriazko erantzuna eman baino lehen, zehaztu beharra dago Departamentu honek zer egin duen parlamentari andreak akordio-programatik aipatzen duen atala eraginkor eta eragingarri egiteko:

Eskubide Sozialetako kontseilariaren urriaren 2ko 10E/2015 Foru Aginduaren bitartez –haren bidez onesten da Gizarte larrialdietarako laguntzak emateko toki entitateentzako diru-laguntza” izeneko deialdia–, urritik bertatik behar diren mekanismoak jarri dira toki entitateek, modu deszentralizatu eta arinean, larrialdiko egoeretan estaldura eman ahal dezaten. Egoera horien artean daude pobrezia energetikoarekin lotutakoak, eta, horrenbestez, programa-akordio 3. idatzatiaz aipatutakoa bete da.

Honako hauek dira gizarte larrialdietarako laguntza hauen ezaugarriak:

- Deszentralizazioa: toki entitateek modu deszentralizatuan jarduten dute, baina eman dituzten laguntzak abenduaren 31rako justifikatu beharko dituzte.

- Malgutasuna laguntza eskuratzeko irizpideetan, errolatuta egoteari dagokionez: exijitzen da laguntza hartzen duena Foru Komunitatean errolatuta egotea, antzinatez eskatu gabe, eta lortu nahi da gure erkidegoan bizi den inor ez dadila geratu estaldurarik gabe, behar diren gutxieneko baldintzak ez egiaztatzeagatik.

- Laguntzaren estaldurak diru-sarrerarik ez duten zein diru-sarrera prekarioak dituzten familia-unitateak hartzen ditu: laguntzetarako sarbidea mugatzen da lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 halako baino diru-sarrera txikiagoak dituzten familietara.

- Larrialdiko/beharrizanezko egoeren estaldura zabala: bizitokia (mailegu hipotekarioak, etxebizitzaren partekatuen ordainketa, bestelako bizitoki moduak), energia-hornidura, ura eta gasa, eguneroko elikadura- eta higiene-gastuak eta abar.

- Laguntzaren eginkizun prebentiboa: helburua da saihestea bazterketa-prozesuen areagotzea eta hornidura elektrikoaren nahiz bestelako horniduren mozketak. Horri dagokionez, eta gainerako laguntza bereziak ez bezala, laguntza hauek zorra sortu aurretik izapidetu daitezke.

- Arintasuna eta berehalakotasuna haiek izapidetzerakoan, populazioaren beharrezanez

erantzun arin eta eraginkorra emanez. Laguntza toki entitateen bitartez modu deszentralizatuan ematen denez, kudeaketa arindu egin daiteke eta laguntzak herritarrei hurbildu, sortutako kontingentziari berehalako erantzuna emanez.

- Onuradunen egiazko kopurua: programaren exekuzio amaitu eta toki entitateek kasuko justifikazioa aurkezten denean ezagutuko da; halere, laguntza hauen hartzaile kopuruari buruzko “zenbatespen” bat egin daiteke: 1.500 pertsona (470 familia-unitate inguru) eta 3.000 pertsona (940 familia-unitate inguru) bitarte dira.

- Bideratutako aurrekontuak 2.000.000 euro egiten du.

Bigarrena.- Planteatutako galderen erantzuna:

a) Urriaren 1ean ba al dago gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dagoen familiarik, bere etxebizitzan oinarritzko hornigaiak bermatu gabe dituenik? Daudenetatik inongo informazio-sistemak ez du uzten Nafarroako Foru Komunitatekoa bezalako lurralde batean bizi diren familia-unitate guzti-guztien egoera partikularra egiaztatzen; hala eta guztiz ere, azaldutako sistemarekin, eta, horrekin batera, gizarteratze-errenta eta laguntza bereziak –Foru Administrazioarenak zein toki entitateenak– bezalako gainerako prestazio sozialekin, baieztatu daiteke gaur egun bazterketa arriskuan egon eta beharra duten familia guztiek beren etxebizitzetan badauzkatela oinarritzko hornidurak.

Horrek ez du esan nahi familia guztiak guztiz estalita egoteari buruzko erabateko ziurtasuna daukagunik, zeren eta familia batzuetan inguruar partikular batzuk egon baitaitezke, dela laguntzak ezagutzen ez dituztelako, dela bestelako arrazoiren batengatik gizarte prestazioen sistemarako sarbiderik ez dutelako.

b) Orain, honako galdera hauei erantzunen diegu: b) Gizartetik baztertuta gelditzeko dagoen zenbat familiak jaso du laguntzaren bat xede horrekin 2015eko uztailaren 23az geroztik? c) Zer aurrekontu esleitu da horretarako? eta d) Uztailaren 23ra arte ba al zegoen egoera horri aurre egiteko laguntzarik? Hala baldin bada, gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dagoen zenbat familiak baliatzen du laguntza hori? Baterako erantzuna emanen diegu zeren eta bereizi egin behar baitira gizarte larrialdietarako laguntza berri hauek eta 2015eko uztaila baino lehenagoko gizarteratze laguntza bereziak, kontzeptuak eta onuradunen ezaugarriak desberdinak direlako.

Hala eta guztiz ere, data horretatik (2015-07-23) hasi eta gaur arte (2015-10-20) honako hauek dira:

Kontzeptua eta azpikontzeptua	Familia-unitateen kopurua
BIZIGARRITASUNA ETA EKIPAMENDUA	429
ETXEBIZITZA EGOKITZEA	19
ETXETRESNA ELEKTRIKOAK - GEHIENEOA	13
EKIPAMENDUA - UR-BEROGAILUA	4
EKIPAMENDUA - SUKALDEA	42
EKIPAMENDUA - ESTUFA	7
EKIPAMENDUA - HOZKAILUA	99
EKIPAMENDUA - GARBIGAILUA	97
OINARRIZKO ALTZARIAK	148
ETXEB. BIZI. ZERRENDA	924
ERRENTAMENDUKO ZORRAK	309
ZOR OROKORRAK	422
AMORTIZAZIOAREN ONDORIOZKO ZORRAK	57
ERRENTAMENDU-KONTRATUETATIK HELDU DIREN GASTUAK	121
ESKRITUREN ONDORIOZKO GASTUAK...	15
Orokorra, guztira	1.353

Ikus daitekeen bezala, azpi-kontzeptu batzuk badaude bat ez datozenak urrian ezarritako sistema berriarekin bermatu nahi direnekin, nahiz eta zeharka estalduran eragin bat izan dezaketen (esate baterako, argindarraren hornidura dela-eta sortutako zor orokorrak, behin kitatu ondoren balizko mozketak saiholditzaketenak). 1.353 familia horiei arreta emateko konprometitu den gastua 796.362,45 eurokoa izan da (laguntza bereziak).

Aipatu den bezala, gizarte larrialdiko laguntzen deialdi berriak 2.000.000 euro izanen ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 28an

Eskubide Sozialetako Lehendakariordea:
Miguel Laparra Navarro

Galdera, Nafarroako Ubidean egin gabe dauden faseek ukitutako herrietako alkateekin izandako bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidean egin gabe dauden faseek ukitutako herrietako alkateekin izandako bilerei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatzizko galdera egin du Nafarroako Ubidea dela-eta alkateekin izandako bilerei buruz (9-15/PES-00080). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

2015eko irailaren 30ean, Nafarroako Gobernuak honako bilera hauek eginak zituen:

Irailaren 11n, bilera bat izan zen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuaren eta Murillo el Frutoko Udalaren artean. Bilerara alkatea bera, Juan Carlos Gabari Sanz, eta Pedro Luis Blázquez eta Kerman Laskibar zinegotziak joan ziren, udalbatzako idazkari

Roberto Horcadarekin batera. Nafarroako Gobernuaren aldetik, honakoak bertaratu ziren: Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusi Ignacio Gil Jordán, Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuko zuzendari Juan Pablo Rebolé Ruiz eta Nekazaritza Zerbitzuko zuzendari Rubén Palacios Goñi.

Irailaren 25ean departamentu beraren eta Leringo alkatearen eta bertako plataformaren arteko beste bilera bat izan zen. Bilerara Consuelo Ochoa alkatea eta Carlos Manuel Yerro joan ziren, azken hori Leringo Plataforma ordezkatzuz. Nafarroako Gobernua ordezkatzuz Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilari Isabel Elizalde Arretxea eta Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusi Ignacio Gil Jordán joan ziren.

Data horren ondotik, beste bilera batzuk izan dira Ribaforadako, Oteitzako, Andosillako, Sesma-ko, Mendabiako eta Artaxoako udalekin eta Arguedasko eta Carcarko ureztatzaileen elkarteekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Galdera, Alesbeseko “El Castellar” ikastetxe publikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Alesbeseko “El Castellar” ikastetxe publikoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-15-PES-00081 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako

Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Villafrancako “El Castellar” Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikora irailaren 9an eta 23an sartu ziren 26. eta 27. ikasleak. Ikasle horiek sartzearen ondorioz, urriaren 14an, ikastetxe horretako haur hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailako taldean bikoizketa egin da.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria José Luis Mendoza Peña

Galdera, Larraungo Gabari etxeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Larraungo Gabari etxeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (8-15/PES-0082) Larraungo Udalerriko Gabari Etxearen egoerari buruz. Galdera horiek 2015eko urriaren 10eko 1402 sarrera-zenbakiarekin erregistratu ziren. Hona Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Gobernuaren 1994ko urtarrilaren 17ko erabakiaren bitartez, Gabari Etxea izenaz ezagutzen zen higiezinaren erabilera Larraungo Udalari utzi zitzaion 30 urteko epe baterako, xede sozialetara-

ko erabil zedin; halaber, ezartzen zen ezen Lekunberriko Kontzejua Udaletik bereizi eta udal independente moduan eratzen bazen, etxe hori Larraungo Udalaren eta haren bulego administrati- bo guztien egoitza ofiziala izanen zela.

Europako Aferen eta Plangintzaren zuzendari nagusiaren maiatzaren 4ko 159/2006 Ebazpenaren bitartez, baimena eman zitzaion Larraungo Udalari eraikin horretan erreforma-lanak egin zitzaion, udaletxe gisa egokitzeko. Ondarearen zuzendari nagusiaren apirilaren 1eko 51/2009 Ebazpenaren bidez, berriz, baimena eman zitzaion Larraungo Udalari Gabari etxearen inguru- nean obra iraunkorrak egiteko.

2013. urtean, Larraungo alkateak Ondare Zerbitzura jo zuen, adieraziz ezen, une hartara arte ezinezkoa izana bazen ere Udalaren egoitza Gabari Etxera aldatzea, Udalak xede horretarako egindako inbertsioek 580.534,75 euro egiten zutela, eta Udalak aurreikusia zuela hurrengo hilabete- etan ekitea eraikinean udal bulegoak jartzeko egokitze-obrak egiteari. Horretarako, Udalak eskatzen zuen Nafarroako Gobernuarekin hitzarmen bat sinatzea, eta haren buruan egotea Gabari Etxearen jabetza Udalari lagatzea. Udala, bere aldetik konpromisoa hartzen zuen higiezina zerbi-

tzu publikoari atxikitzeko zehaztu gabeko aldi baterako, betiere ez 20 urtekoa baino laburragoa, eta Foru Komunitateko Gobernuari bermatuko zion bere zerbitzuak jartzeko espazioa edukiko zuela.

Ondare Zerbitzuak ulertu zuen ezen, une horretara arte ez bazen bete higiezin lagatzeko xedea, ez zuela egokia ematen haren jabetza lagatzea; hala eta guztiz ere, beste erabilera-lagapen bat proposatu zion Udalari, 25 urtekoa, xede berarekin eta Udalaren egoitza Gabari etxera aldatzen zen unean jabetza lagatzeko konpromisoarekin.

Aurrekontuaren zuzendari nagusiaren otsailaren 3ko 19/2014 Ebazpenaren bitartez, Gabari Etxea izenaz ezagutzen den higiezinaren –Mugiroko (Larraun) 20. poligonoko 280 eta 281. katastro-lursailetan dago– doako erabilera laga zitzaien Larraungo Udalari, 25 urterako, honako betebeharrarekin: Larraungo Udalaren egoitza ofiziala izatea. Udalari bost urteko epea eman zitzaien higiezin xede horretarako egokitzeko behar ziren obrak burutzeko.

2014ko martxoaren 6an, Ondare Zerbitzuari jakinarazi zitzaien Larraungo Udaleko Osoko Bilkurak 2014ko otsailaren 28an hartutako erabakia. Haren bidez, Aurrekontuaren zuzendari nagusiaren otsailaren 3ko 19/2014 Ebazpena onartzen

zen, bai eta Mugiroko udalerrian (Larraun) dagoen Gabari Etxea izenaz ezagutzen den higiezinaren lagapena ere, ebazpen horretan ezarritako baldintzetan.

Azken batez, Gabari Etxea izeneko eraikinaren erabilera, gaur egun, Udalari lagata dago, 25 urteko epe baterako, lagapena onartu zen egunetik, hau da, 2014ko otsailaren 28tik, kontatzen hasita. Udalak higiezin hori bere egoitzarako erabiltzeko betebeharra dauka, eta horretarako bost urteko epea ematen zaio higiezin xede horretarako egokitzeko behar ziren obrak burutu ditzan. Baldin eta bost urteko epean, hau da, 2019ko otsailaren 28a baino lehen, ez badu xede hori bete, higiezin Nafarroako Foru Komunitatearen esku geratuko da.

Aitzitik, xede hori ezarritako epean betetzen bada, Ondare Zerbitzuak konpromisoa hartua du higiezinaren jabetzaren lagapena egiteko, baldin eta Udalaren egoitza gisa erabiltzen jarraitzen bada.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 23an.

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:
Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, Justizia Ministerioarekin Justizia Administrazioaren hobekuntza teknologikorako sinaturiko hitzarmenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Inmaculada Jurío Macaya andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Justizia Ministerioarekin Justizia Administrazioaren hobekuntza teknologikorako sinaturiko hitzarmenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako foru parlamentari Inma Jurío Macaya andreak idatziz erantzuteko galderak egin ditu (9-15/PES-00083) Justizia Ministerioarekin sinatutako hitzarmenari buruz; hitzarmena gure erkidegoan Justizia Administrazioa teknologiaren aldetik hobetzeko da, eta 83.534 euroko zenbatekoa dauka. Hona Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak ematen dion erantzuna:

Honako galderari dagokionez: "Hitzarmen hori IUS+Red izenez sinatuaren jarraipena al da, zeinak 2014ra arteko indarraldia eta FEDER funtsen finantzaketa baitzuen?"

Aipatutako testua ez da IUS+red izenez sinatuaren jarraipena, zeinak 2014ra arteko indarraldia eduki eta Feder funtsen finantzaketa baitzuen.

Justizia Ministerioak emandako dokumentazio-tik ondorioztatzen da 6 milioiko kontusail berezi bat dela, baliabideen traspasoa egina duten autonomia erkidegoentzat, doako justiziaren ezarpena hobeki egin dadin laguntzeko, teknologia berrien bultzada eta ezarpena errazteko eta antolamendu judizialaren mantentze-lanetarako behar diren bitarteko materialen zuzkidura hobetzeko.

Testua 2015eko apirilaren 8an egindako bilkurako aktaren hitzez hitzeko kopia bat da; bertan

jakinarazi zen Ministerioak erkidegoei, oro har, zer kopuru emanen zien; horretatik, Nafarroari, azkenean, 83.534 euro gokituz zaizkio.

Honako galdera hauei dagokionez: "– Zein da hitzarmen berriaren indarraldia?" eta "83.000 euroko zenbatekoa 2015erako al da, ala hitzarmenaren indarraldi osorako? Indarraldi osorako baldin bada, zer zuzkidura aurreikusten da indarraldi-urte bakoitzerako?"

Indarraldia urtekoa da, eta 2016ko martxorako ordaindu beharko da.

Ministerioak konpromisoa hartzen du etorkizuneko aurrekontu-ekitaldietarako kontusail bat ezartzeko, urteko izaera duena.

Ezin dugu bermatu hori hala izanen denik, are gutxiago haren kopurua zein izanen den.

Honako galderari dagokionez: "Xede jakineko hitzarmena denez, zer garapen informatiko zehatzetan aplikatuko da? Kuantifikatuta al daude horiek?"

Xede jakinekoa da berrikuntzaren, modernizatzaren eta doako justiziaren printzipioei dagokionez.

Kontseilari honen borondatea da ASIGNA aplikazioa hobetzen joatea. Doako justizia, abokatuen eta prokuradoreen lanbide-elkargoekin batera, kudeatzeko balio duen aplikazioa da, eta haren xedea da ahal den guztian saihestea gaur egun herritarrei doako justizia izapidetzeko eskatzen zaion dokumentazioa, esku hartzen dutenentzako ordainketak arintzeaz gainera.

Gainera, aurrekontuak horretarako bidea ematen badu, erregistroak digitalizatzeko linea bat irekiko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako batzorde klinikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Chivite Navascués andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako batzorde klinikoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00084), informazioa nahi baitu "Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoak, 16.3 artikuluan, xedatutako Batzorde Klinikoari buruz". Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Lehenbizi, Osasuneko kontseilariaren martxoaren 5eko 26/2015 Foru Aginduan xedatuaren arabera, gaur egun honako hauek dira Sexu- eta

Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoko 15.c) artikuluan aurreikusitako arrazoi medikoengatik haurdunaldia eteteko kasuetan esku hartu behar duen Batzorde Klinikoaren osatzen duten pertsonak:

1. Ginekologia eta obstetrixiko edo jairo aurreko diagnostikoko espezialistak:

- Titularrak: Isabel Martínez Montero andrea eta José Javier Pérez Dettoma jauna.
- Ordezkoak: Ana Modroño Blanco andrea eta Jesús Zabaleta Jurio jauna.

2. Peditrak

- Titularra: Lourdes Gómez Gómez andrea.
- Ordezkoa: Concepción Goñi Orayen andrea.

Bigarrenik, sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko foru dekretu berria argitaratu ondoren, departamentu honek aurreikusia dauka aipatutako Batzorde Klinikoaren osaera aldatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 9. artikulua betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Chivite Navascués andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 9. artikulua betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00085), informazioa nahi baitu "Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 9. artikulua betetzeari buruz." Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Osasun Departamentuak ez dio gaur arte Nafarroako Parlamentuari helarazi itxaron zerrenden egoerari buruzko aldizkako txostenik.

Hala eta guztiz ere, bi alderdi garrantzitsu aipatu behar ditugu horri buruz:

1. Hilero, Nafarroako Gobernuaren webgunean (navarra.es), Osasunaren atalean, itxaron zerrenden egoerari buruzko zehaztasunak ematen dira, bai lehenengo kontsulten kasuan, bai jarduera kirurgikoaren kasuan. Informazio hori herritar guztien eskura dago.

2. Osasun Sistema Nazionaleko itxaron-zerrenden informazioaren trataera homogeneorako neurriak ezartzen zituen maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretuak 2.4 artikuluan ezartzen du Osasun Ministerioak Osasun Sistema Nazionaleko itxaron zerrendei buruzko informazio sistema bat edukiko duela, eta hartan IV. eranskinean jasotako datuak bilduko direla; horretarako autonomia erkidegoek sei hilabetez behin beren datuak bidali beharko dituzte.

Horri dagokionez, aipatu beharra dago O-NOZek sei hilabetez behin informazioa igortzen diola Osasun Ministerioari.

Osasun Departamentuak aurreikusita dauka aipatutako foru legeko artikulua betetzea, eta horretarako informazio hori sei hilabetez behin igorriko zaio Nafarroako Parlamentuari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, laneko osasun plan berri bat prestatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Chivite Navascués andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, laneko osasun plan berri bat prestatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00086), informazioa nahi baitu "Nafarroako Lan Osasunaren Planari buruz". Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

2015eko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru hauteskundeak egin baino 2 hilabete lehena-go, aurreko Nafarroako Gobernuak Nafarroako Lan Osasunaren III. Plana (2015-2020) onetsi zuen, planaren proposamena 13 egun eskasetan eskuragarri egon ondoren herritarren ekarpenak jasotzeko.

Lan osasunaren aurreko plana 2012an amaitua zen.

Onetsitako plan berria Seguritasunaren eta Osasunaren Europako Esparru Estrategikoaren barruan dagoenez, jo beharra dago helburu orokorrei buruz daukan formulazioan egoki orientatuta dagoela. Hala eta guztiz ere, zehaztasuna falta duela uste dugu.

Hori dela eta, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren zuzendari kudeatzaile berriak hura berrikusteko asmoa du,

ekintza plana osatuz helburu eta helmuga berriazkoekin, bai eta kronograma eta aurrekontu zehatzagoekin ere.

Plan berriak egoerari buruzko diagnostiko bat egiteari buruzko kapitulu bat badaukan arren, kapitulu hori ezin da berez jo Lan Osasunaren II. Planaren (2007-2012) ebaluazio bat denik.

Lan osasunaren politika, plan eta programak ebaluatzeari dagokionez Chivite andreak erakutsitako kezkekin ados gaude, eta geure gain hartzen dugu egiteko hori.

III. planak ez du bere baitan biltzen helburuak ebaluatzeko adierazlerik, baina kontseilari honen eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren zuzendari kudeatzailearen borondatea da III. plan honen aplikazioan parte hartzen duten eragileak premiatzea behar diren adierazleak ezar ditzaten, jarduerari eta inpaktuari dagokienez.

Lan Osasunaren Zerbitzu berria (antzinako Nafarroako Lan Osasunaren Institutua) aitzindaria izanen da lantalde baten osaketan, egin beharreko lan teknikoaz ardura dadin III. planean helburu zenbagarriak ezartzeko, beharrezko aldaketak egiteari begira haren jarraipena egiteko eta, azken batez, haren ebaluazioa bideratzeko.

Hori guztia lan arriskuen prebentzioaren arloko agintariekin batera lan eginez. Hau da, gobernu honetako Garapen Ekonomikorako Departamentuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusia.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 7.1. artikulua betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Chivite Navascués andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen 7.1. artikulua betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00087), informazioa nahi baitu "Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 16ko 14/2008 Foru Legearen

7.1 artikulua betetzeari buruz" Hauxe da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuaren webgunearen bitartez, hileroko informazioa ematen du lehen kontsultetarako eta prozedura kirurgikoetarako itxaron zerrenden egoerari buruz.

Une honetan, ez da informaziorik ematen proba osagarrietarako dagoen atzerapenari buruz, baina aipatu beharra dago hemendik gutxira, proba garrantzitsuenetarako dauden atzerapenei buruzko hileroko informazioa emanen dugula Nafarroako Gobernuaren webgunearen bitartez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urriaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Alesbeseko "El Castellar" HLHIPari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Alesbeseko "El Castellar" HLHIPari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

PSN parlamentu-taldeak 9-15-PES-00088 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako

Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Villafrancako "El Castellar" Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikora irailaren 9an eta 23an sartu ziren 26. eta 27. ikasleak. Ikasle horiek sartzearen ondorioz, urriaren 14an, ikastetxe horretako haur hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailako taldean bikoizketa egin da.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria José Luis Mendoza Peña

Galdera, enpresen likidezia arazoak konpontzeko bide berriei eta finantzaketa iturriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ainhoa Unzu Gárate andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enpresen likidezia arazoak konpontzeko bide berriei eta finantzaketa iturriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Unzu Gárate andreak 9-15/PES-00089 galdera egin du. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren informazioa:

1. puntua. Nafarroako Gobernuak zer lerro onetsiko ditu enpresek finantzaketarako sarbidea eta inbertsiorako babesia izan dezaten?

- Enpresa Sustapenaren Zerbitzuan.

Enpresen inbertsioa eta lehiakortasuna laguntzeko, honako deialdi hauek izapidetuko dira:

- Enpresa txiki eta ertainentzako inbertsiorako 2016ko laguntzak
- Nekazaritza-elikaduraren arloko industrietarako inbertsiorako 2016ko laguntzak
- Enpresa handientzako inbertsiorako 2016ko laguntzak
- Lehiakortasuna hobetzeko 2016ko laguntzak

• Berrindustrializazioaren, Lehiakortasunaren eta Proiektu Estrategikoen Zerbitzuan.

Nafarroako enpresen finantzaketa errazteko, abalen linea bat jarriko da, elkarrekiko bermerako sozietateekin batera.

2. puntua. Kontseilariak zer programaren bidez eman nahi die eragingarritasun handiagoa Nafarroako enpresa-proiektuen berrikuntzari eta teknologiarari?

Berrikuntzari dagokionez, nabarmendu nahi dugu Enpresa Sustapenaren Zerbitzuaren inbertsiorako laguntzak gehiago baloratzen direla eta laguntza handiagoak jasotzen dituztela I+G

proiektuak egiten dituzten eta horien emaitzetan inbertitzen duten enpresen kasuan.

- Berrikuntzarako eta Ezagutzaren Transferentziarako Zerbitzuan.

Gaur arte berrikuntza laguntzeko dauden tresnen indarguneak eta ahulguneak aztertzen ari gara, bai eta herrialde berritzaileenetan dauden politika eta tresnak ere, dauzkagun politikak eta berrikuntza-tresnak birdiseinatze aldera.

Eraginkortasun handiena finantzaketan, ezagutzaren transmisioan eta laguntzen ordainketan bilatuko dugu.

Garapen Ekonomikorako Departamentuaren helburu orokorra, enpresek garatutako I+G proiektuei laguntzeko neurriei dagokienez, izanen da sustatzea Nafarroako enpresek berrikuntzak egin ditzatela lehiakorrek izateko, eta beren I+G proiektuak gara ditzatela, atal batean laguntza publikoa eta beste atal batean funts berekiak hartzen dituen finantzaketa batean oinarrituta. Ezagutzaren transferentzia bultzatzeko asmoz, sarituko da edo exijituko da, deialdiaren arabera, unibertsitateek eta zentro teknologikoei proiektuan parte har dezatela. Halaber, hobekuntzak egiten dira laguntzak ordaintzeko egutegia proiektuen finantzaketa-beharrei egokitzeko. Kontuan hartuko diren beste alderdi bat dira genero-berdintasunerako neurriak eta desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa.

Modu gehigarrian, urteroko izaera duten honako neurriak ezarriko dira:

– TEC bonoak, zentro teknologikoak eta ikerketa-erakundeak kontratatuzko, horren bidez ezagutzaren transferentzia errazteko: entitate sortzaileetatik entitate erabiltzaileetara.

– SIC bonoak, ezagutza-zerbitzu intentsiboak kontratatuzko eta nazioko zein nazioko entitateek ebaluatu eta finantzatzeko dituzten proiektu proposamenak prestatu ahal izateko, nagusiki H2020 ingurukoak.

– Teknologoen kontratazioa, gazteen talentua sartzeko enpresen eta eskualdeko berrikuntzarako sistemako beste eragile batzuen ezagutzaren garapenerako arloetan.

Jarraituko dugu bultzatzen gara dadila sarean eskualdeko zentro teknologikoei eta ikerketa-erakundeek buruz dagoen ezagutza, haien gaikuntza-

proiektuen garapena indartuz, proiektu eragileekin batera; horrek eragin zuzena izanen du industria-ehunduran.

Azkenik, nabarmendu beharra dago 2016an zientzia eta teknologia plan berria eginen dela, non berrikuntzaren esparruan publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak hobetzeko ilodak ezarzen baitira.

3. puntua. Zer programa jarriko dira abian enpresa-proiektuei balio erantsi handiagoa emate aldera, haien lehiakortasuna eta kanpo-merkatuetako posizionamendua sustatzeko?

- Enpresa Sustapenaren Zerbitzutik:

1. puntuan jasotako deialdien diseinuan eta kudeaketan, kontuan hartuko da hurrengo ebaluazio-parametroak: enpresaren tamaina, kalitatezko enplegua, enpresa nazioartera eramateko gaitasuna, makinerian egindako inbertsioa, enpresaren berrikuntza, sortutako enplegua, enpresaren orientabide estrategikoa eta sektore edo kluster estrategikoak.

- Berrindustrializazioaren, Lehiakortasunaren eta Proiektu Estrategikoen Zerbitzutik.

Enpresa-klusterretarako berariazko laguntzak antolatuko dira.

- Nazioarteko Proiektzioaren Zerbitzutik:

Helburu orokorra da esportatzen hasten diren enpresen kopurua handitzea eta haiei finkatzen laguntzea, finkapen hori modu erregularrean egin dezatela lortzeraino. Horretarako, enpresei laguntze emanen zaie nazioarteratzeko fase desberdinetan, bai hasierako fasean, bai finkapen eta ezarpen fasean ere, eragin berezia jarritz hasierako fasean eta lehenengo urteetan, ohikotasunez esportatzen duten enpresak bilaka daitezten.

Helburu zehatzagoei erreparatuta, ondoren aurreikusitako programa edo jarduketak jaso ditugu:

- Bai banaka, bai beste batzuekin batera esportatzen hasten diren Nafarroako enpresa txiki eta ertainen kopurua handitzea.

- Kanpoko sustapenerako 2016ko laguntzen deialdia egitea (ICEX Next delakoaren osagarri).
- “Cointernacionalízate” programa, Nafarroako enpresa txiki eta ertainek nazioarteratzeari begira elkarrekin lan egin dezaten sustatzeko.
- 2016ko taldekako nazioarteratzerako deialdia. Nafarroako enpresa txiki eta ertainak

nazioartera ateratzeko proiektuetarako diru-laguntza.

- Nazioartean nolabaiteko ibilbidea egin duten Nafarroako enpresa txiki eta ertainen esportazioen finkapena edo/eta kanpoko ezarpena lortzea.

- Nazioarteratzearen arloan zerbitzu espezializatuak kontratatze laguntzen 2016ko deialdia.

- Talentuaren nazioarteratzea hobetzea, 2016ko nazioarteko praktikaldien deialdiaren bitartez.

- Nazioarteko profila duen talentu nafarra Nafarroako enpresa-ehunduran txerta dadin erraztea, nazioarteko merkataritza lan teknikoak egiteko pertsonak kontratatze 2016ko deialdia eginez.

- Gobernuaren eta Nafarroako enpresa txiki eta ertainen artean hedapena, komunikazioa eta elkarrreragina areagotzea, Nafarroaren Nazioarteko Planaren webgunea, bloga eta sare sozialak dinamizatuz.

- Nafarroako Gobernuaren eta enpresa nafarren nazioarteratzean lan egiten duten eragile ekonomiko eta sozialen arteko ekintza koordinatua erraztea, horretarako behar diren aldizkako bilerak eginez.

- 2017-2020 urteetarako Nafarroaren nazioarteratze plan berria egitea.

4. puntua. Programa horiek abian jartzeak zer kostu izanen du Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuetan?

2016rako Aurrekontuen Foru Legearen aurre-proiektuaren proposamenean, honako zuzkidurak jaso dira:

- Enpresa sustapena:

Inbertsioarako eta lehiakortasuna hobetzeko lineetarako 24.900.000 euroko zenbatekoa aurreikusita da.

- Berrindustrializazioa, Lehiakortasuna eta Proiektu Estrategikoak.

Elkarrekiko bermerako sozietateen bidezko abaletako linearen beharrezanez aurre egiteko 850.000 euroko kopurua aurreikusita da.

- Nazioarteko Proiektzioa.

Aurreikusitako laguntza-neurriak garatzeko 1.140.000 euro ezarri dira.

- Berrikuntza eta Ezagutzaren Transferentzia.

Enpresek eta zentro teknologikoek garatutako proiektuak laguntzeko neurriei begira, 21.000.000 euroko zenbatekoa aurreikusita da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko, jakin dezazun eta behar diren ondorioak izan ditzan

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen Iruñeko haur eskolei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen Iruñeko haur eskolei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunak idatzizko galdera egin du (9-15/PES-00090); haren bidez jakin nahi du "ea Nafarroako Gobernuak planen bat ba ote duen Iruñean kokatutako eta Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen haur eskoletan euskarazko eskaintza egiteko, soilik gaztelaniazko eskaintza daukatenean" Baiezkoan, jakin nahi du "zer urrats egingen dituen eta zein egutegi darabi-

len horretarako". Hona Nafarroako Eskubide Sozialetako lehendakariordearen informazioa:

Une hauetan, Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen haur eskolak (7 dira guztira) Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentziaren menpean daude (Eskubide Sozialetako Departamentua).

Programa-akordioaren puntuetako batek eskola horiek Hezkuntza Departamentuak kudeatzearen alde egiten zuen, "haien hezkuntza izaera ukaezina" dela eta. Konpromiso horretatik abiatuta, datozen hilabeteetan, eta Hezkuntza Departamentuarekin eta toki entitateekin ados jarrita, lan programa bat eta kronograma bat egingen dira. Horiek, izan ere, aukera emanen dute kudeaketaren transferentziari datzekion aldatetako gauzatzeko eta hizkuntza-eskaerari erantzuteko behar diren neurriak ezartzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea Miguel Laparra Navarro

Galdera, Beriaingo udalerriko hezkuntza-azpiegiturako beharrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Beriaingo udalerriko hezkuntza-azpiegiturako beharrei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, UPN parlamentu-taldeko kidea denak, 9-15/PES-00091 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren INFORMAZIOA:

2014ko azaroaren 10ean, Hezkuntza Departamentuko Obren Ataleko teknikariek bisita bat egin zuten Beriaingo Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikora, Beriaingo Udalak eskatuta, zentroko instalazioen egoera orokorra baloratze aldera. Gero, 2014ko abenduaren 15ean, parlamentu-galdera baten bitartez, aipatutako ikastetxe era askotako gabeziak zuzentzeko arloko teknikariek egindako txostena eskatu zen.

Gai horri dagokionez, kasuko txostena egin zen, non, laburbilduz, honakoa esaten baita:

Beriaingo Ikastetxe Publikoak ez du espazio arazorik haur eta lehen hezkuntzako 17 unitateetan haurrak eskolatzeko aplikatzekoa den araudia-

ren arabera. Gainera, espazio osagarri batzuk erabilgarri dauzka, 8 ikasgela, hezkuntza-jarduere-tarako erabil daitezkeenak eta, etorkizunean nahi bada, eskolatzeko beharrak handitzetik heldu daitezkeen talde-zabalpena har dezaketenak.

Gainera, honakoa esan daiteke:

1. Beriaingo Ikastetxe Publikoaren eraikina ez da egoki mantendu izan, edo ez behar den maiztasunarekin, eraiki zenetik, eta haren egoera alderdi askotatik hobetu daiteke pixkanaka planifikatu eta egin daitezkeen esku-hartzeen bitartez.

2. Azken urteetan egindako mantentze-jarduketara batzuk ez dira egokiak izan, eta ez dira lortu egindako inbertsioaren arabera desio zitezkeen emaitzak.

3. Gomendatzen diren esku-hartze guztiak Beriaingo Udalaren eskumenekoak dira. Halaber, esku-hartze horiek urtero Hezkuntza Departamentuak toki entitateentzako egiten duen diru-laguntzen deialdiaren xedearan araberakoak dira. Nafarroako udal askok antzeko esku-hartzeak egin dituzte deialdi horretara bilduta.

4. Aipatutako mantentze-lanak planifikatu eta egiteko eskumena Beriaingo Udalarena bada ere, Hezkuntza Departamentuko teknikariek laguntza eman dezakete, baldin eta udal teknikariek eskatzen badiete, konponbide tekniko egokiak bilatze aldera.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria José Luis Mendoza Peña

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren irizpideei buruzkoa, irakasleen ordezkapenari dagokionez.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Esther Korres Bengoetxea andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuaren irizpideei buruzkoa, irakasleen ordezkapenari dagokionez. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak galdera egin du (9/15/PES-00092) irakasleen ordezen irizpideei buruz. Hona informatu beharrekoa:

Une honetan unibertsitatez besteko irakasleak ordezteko Hezkuntza Departamentuak erabiltzen dituen irizpideak honako erantzun honetan erantsen direnak dira, eta hain zuzen ere 2011-2012 ikasturtean ezarri zirenak dira.

Ordezpen-irizpide horiek berriki helarazi zaizkie sindikatu-erakundeei, zehazki unibertsitatez besteko irakasleen mahai sektorialari, 2015eko urriaren 2ko bilkuran, haiek berriz azter ditzaten eta, kasua bada, irakasleak ordezteko irizpidea berrikus daitezten.

Iruñean, 2015eko urriaren 22an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria José Luis Mendoza Peña

Galdera, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen maiatzaren 3ko 189/2004 Foru Dekretuaren aplikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunek egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen maiatzaren 3ko 189/2004 Foru Dekretuaren aplikazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera eta José Luis Sánchez de Muniáin jaunek idatzizko galdera egin dute Nafarroako Gobernuaren logotipo ofizialaren erabilerari buruz (9-15/PES-

00093). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuaren Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak 2015eko abuztuan baimeana eman zuen euskarri desberdinetan, baita webgune korporatiboan ere, erabiltzeko Nafarroako Gobernuaren logotipoaren bertsio barneratzaile bat, hizkuntzen ikuspuntutik, foru gobernuak 1985etik 2004ra arte egiten zuten bezala. Hilabete berean, aipatutako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Gobernuaren departamentu guztiei igorri zien logotipoaren bertsio integratzaile hori, bai eta hura eskatu zuten bulego administratibo eta enpresa publikoei ere.

Erabaki hori hartu zen kontuan hartuz Nafarroa bi hizkuntza bereki, gaztelania eta euskara, dituen erkidegoa dela eta, horrenbestez, ikuspegi linguistikoki anitz eta integratzaile batetik, errealitate hori Gobernuaren ikur ofizialean adierazi beharra dagoela, halako moduz non haren marka grafiko-

ak Nafarroaren aniztasuna azalduko duen, aurreko gobernuekin, horren barne direla UPNren gobernu batzuk, egin zen bezala.

Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu da administrazioek hizkuntzen errespetuarekin eta erabilearekin eduki beharreko konpromisoa, zeina Espainiako Konstituzioko 3.3 artikuluan jasota baitago; izan ere, bertan, “Espainiako hizkuntzekiko begirune eta babes bereziaz” hitz egiten da, eta printzipio horretan bertan oinarritu zen Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea, zeinak atarikoan aipatzen baitu “Erkidegoen ondare kulturalaren barruan, hizkuntzek toki nagusia dutela”. Horri dagokionez, Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak uste du Gobernuaren logotipoa toki ezin hobea dela Nafarroako Foru Komunitatearen hizkuntz ondare kulturala lehentasunez adierazteko, hartara marka grafikoaren adierazpide baztertzailaigo batzuk gaindituta.

Horrenbestez, departamentu guztiei kontsulta egin ondoren, Gobernuari igorri zitzaion, aintzat

har zezan, foru dekretuaren proiektu bat, Nafarroako Gobernuaren logo ofizialaren arautzeari buruzkoa, logo horrek fideltasun handiagoz isla ditzan Espainiako Konstituzioko eta Euskarari buruzko Foru Legeko aipatutako idatz-zatietan jasotako printzipioak eta susta dezan adierazpide grafiko barneratzaile bat, Nafarroaren hizkuntza-errealitatearen ikuspuntutik. Foru dekretuaren proiektu hori, zeinak zioei buruzko dagokion txostena bai baitu, aintzat hartu zuen Nafarroako Gobernuak 2015eko urriaren 28an egindako bilkuran. Bilkura horretan, Gobernuak erabaki zuen, halaber, testu hori Nafarroako kontseiluari igortzea, aginduzkoa den txostena eman dezan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, Nafarroako Gobernuak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean ezarritako betebeharrak betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean ezarritako betebeharrak betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

2015eko urriaren 8an, UPN parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunaren idazki bat sartu zen Nafarroako Parlamentuko erregistroan. hartan azaltzen du, batetik, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeak ezartzen duela argitara eman behar direla Gobernuko eta Foru Administrazioiko goi-karguen ordainsariak, ondasunak eta ondare-eskubideak. Bestetik dio Goi Karguen

Bateraezintasunei buruzko Foru Legeari jarraituz, goi karguek aurkeztu beharreko aitortpenen edukia zein den, eta haiek aurkezteko epea luzaezina dela, eta jabetza hartzen duten unetik bi hilabetekoa dela; azkenik, azaltzen du 6/2003 Foru Dekretuak ezartzen duela, halaber, bi hilabeteko epea dagoela aitortpenak aurkezteko, eta aipatzen du goi karguen ordainsari, jarduera eta ondareari buruzko zenbait alderdi nahitaez argitaratu beharrekoak direla. Halaber, idazki horrek azaltzen du ezen, bi hilabeteko epe luzaezina iraganik, egiaztatu duela Gobernu Irekiaren webgunean ez direla ageri aipatutako foru legeek nahitaez kotzat jotzen dituzten informazioak; aitzitik, behar ez bezala ageri direla jada Foru Administrazioiko goi kargudun ez diren pertsona batzuei buruzko informazioak. Horrekin, dio, Gobernu pertsona horien eskubideak urratzen ari da. Idazkiaren amaieran idatzizko erantzuna eskatzen du honako galdera hauetarako:

– Gobernuak noiz beteko ditu Gardentasunari buruzko Foru Legeak ezarritako betebeharrak?

– Zein da informazio hori argitaratzeko atzerapenaren arrazoia?

– Gobernuak noiz gaurkotuko du orri hori, Foru Administrazioako egungo goi kargudunen informazioarekin?

Lehenbizi, gogorarazi beharra dago zein den arlo honetan indarrean dagoen arau-esparrua; gero, azaldu beharra dago zein den Goi Karguen Jardueren eta Interesen Erregistroaren funtzionamendua.

Hartara, alde batetik, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeko 13.b) eta 63. artikuluek ezartzen dute goi karguek aurkeztutako jarduera, ondasun eta eskubideen aitortpenetan jasotako datuak argitaratu beharrekoak direla, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako goi-kargudunen ordainsarien, jardueren eta ondasunen aitortpena eta argitalpena arautzen dituen urtarrilaren 23ko 6/2013 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

Bestalde, bai 6/2013 Foru Dekretuak, 2. artikuluan, bai Nafarroako Gobernu Kideen eta Nafarroako Foru Administrazioako Goi Karguen Batazintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeak berak, 12. artikuluan, ezartzen dute legez jarduera, ondasun eta eskubideen aitortpenak aurkeztu behar direla jabetza hartu eta goi kargua uzten den egunetik hasi, hurrenez hurren, eta hurrengo bi hilabeteko epean, bai eta urtero beste aitortpen bat ere, ekainean zehar.

Behin aitortpen horiek aurkeztuta, Goi Karguen Jardueren eta Interesen Erregistroak haiek aztertu eta berrikusiko ditu. Formazko akatsik aurkituz gero, interesdunei eskatuko zaie haiek zuzen ditzaten, eta ondoren Nafarroako Gobernuaren intereneteko web atarian argitaratu beharreko dokumentuak egiten ditu. Horretarako, argitaratzekoak diren datuak hautatu eta kasuko dokumentuan sartzen dira, gero argitara daitezten. Lan hori osatzen den une horretantxe Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, bera baita Goi Karguen Erregistroa kudeatzeko ardura duena, modua edukiko du Lehendakartzaren eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza Nagusiari bidaltzeko argitaratuko den informazioa, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean xedatuaren arabera. Lege horrek, halere, ez du ezartzen zein izan behar duen argitalpen horren hasierako edo/eta amaierako data, ez eta zenbat denboraz egon behar duen argitaratuta jarduera, ondasun eta eskubideen aipatutako aitortpenak.

Hala eta guztiz ere, puntu honetan nabarmendu beharra dago aurreko legegintzalditik heldu

den jokabidea dela aitortpenak bereiz ez argitaratzea, eskuragarri dauden neurrian, baizik eta itzarotea aldi berean egindako izendapenen multzo bateko guztiak eduki arte, egungo Nafarroako Gobernu kideei dagozkien aitortpenekin gertatu den bezala, edo, esate baterako, urteko aitortpen guztiak prest eduki arte itzarotea, 2014ko ekaineko urteko aitortpenekin egin zen bezala, guztiak aldi berean argitaratu baitziren urte hartako azaroaren 4an.

Bada, puntu horretara iritsita, eta planteatutako galdera idatziei erantzun zehatza eman baino lehen, bidezkoa hurrengo aipatzea Sánchez de Muniáin jaunak bere idazkian egindako baieztape-nei dagokienez:

Lehena. “..bi hilabeteko epe luzaezina iraganik, egiaztatu duela Gobernu Irekiaren webgunean ez direla ageri aipatutako foru legeek nahitaezko egiten dituzten informazioak...” dionean, esan beharra dago erreferentziako araudian aipatzen den bi hilabeteko epe luzaezina, goi karguei aitortpenak erregistroan aurkezteko ematen zaiena dela, eta ez haiek argitaratzeko dagoena. Eta, aipatu den bezala, ez dago inongo araurik kasuko datuak argitaratzeko epea ezartzen duenik.

Bigarrena. Sánchez de Muniáin jaunak honakoa dio, halaber: “foru administrazioako goi kargudun jada ez diren zenbait pertsonari buruzko informazioa bidegabeki ageri da oraindik, nahiz eta ez zen halakorik ageri behar; horrenbestez, Gobernuak haien eskubideak urratzen ditu.” Horren gainean, berretsi beharra daukagu arestian adierazitakoa, alegia, araudiak nahitaezko egiten duela goi karguek agintaldiaren hasieran, agintaldian zehar eta agintaldiaren amaieran dauzkaten ordainsari, jarduera eta eta eskubideei buruzko datuak argitaratzea, eta araudi indardunean ez dagoela aurreikusita inongo eperik ez informazio hori interneten argitaratzeko, ez eta argitaratutako informazioan bertan mantentzeko ere. Horrenbestez, ez da egia informazioa bidegabeki ageri denik, zeren eta argitalpen hori lege-agindu baten ondoriozkoa baita; ez eta horregatik eskubideen urratze bat dagoenik ere.

Egindako galderei zehatz erantzuteko:

Gobernuak noiz beteko ditu Gardentasunari buruzko Foru Legeak ezarritako betebeharrak horiek? galderari, honako erantzun hau ematen zaio:

2015eko uztailaren 23an egindako izendapenen ondotik, Gobernu kide guztiak, salbuespenik gabe, beren aitortpena aurkeztu dute horretarako legez ezarritako epearen barruan, eta aitortpen horiei buruzko informazioa 2015eko urriaren 16an argitaratu da.

Beste goi kargu batzuen aitortpenei dagokienez, kasuko artxiboak dauzkagun neurrian joanen dira argitaratzen, Goi Karguen Erregistroak egin beharreko lanak egin ondoren aginduzkoak diren datuak argitaratzeko.

Zein da informazio hori argitaratzeko atzerapenaren arrazoia? galderari, berriz, hauxe erantzun behar diogu:

Argitalpenetan ez da inolako atzerapenik gertatu. Aurreko legegintzalditik heldu den jokabidea da aitortpenak jaso ahala izendapen-multzoen arabera prestatzen direla eta gero argitaratu egiten direla.

– Gobernuak noiz gaurkotuko du orri hori, Foru Administrazioako egungo goi kargudunen informazioarekin? galderari hau erantzun behar diogu:

Interneteko webgunean ezinbestez batera agertu behar dute aurreko Nafarroako Gobernuko goi karguei buruzko informazioak eta gaur egungo goi karguei buruzkoak. Lehen azaldu bezala, informazio hori argitaratzen joanen da behar bezala

aurkezten den neurrian, akatsik gabe eta argitaratzeko egoki prestaturik.

Kargutik kendu diren goi karguei dagokienez, orri horretan ageri den urteko aitortpenari eutsi eginen zaio Foru Parlamentuak, aplikatzekoa den araudian, ezarri arte zenbateko epean egon behar duen informazio horrek argitaratuta.

Horri dagokionez, Gobernuak Foru Parlamentuari planteatuko dio epe bat ezarri beharra dagoela, kontuan hartuta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeak ez duela ezartzen informazio horrek zenbat denboraz eduki behar den argitaratuta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoak 2016rako aurreikusita dituen lan eskaintza publikoaren deialdiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Chivite Navascués andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Administrazio Publikoak 2016rako aurreikusita dituen lan eskaintza publikoaren deialdiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

2015eko urriaren 8an, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak idazki bat sartu zen Nafarroako Parlamentuko erregistroan. Hartan, honako informazio hau eskatzen du:

Nafarroako Administrazio Publikoak zenbat lan eskaintza publiko aurreikusi du deitzea 2016an? Zer alorretan? Zenbat lanpostu eskaintza bakoitzean? Noiz?

Bada, hauxe da erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, une honetan, aztertzen ari da 2015eko balizko enplegu eskaintza publikoa. Gaur den egunean, oraindik ez dago esparruen arabera antolatutako proposamenik, ez eta deialdiak, oro har, egiteko datarik ere. Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago Gobernuaren asmoa dela enplegu eskaintza publikoaren proposamenen sartzeari buruzko Foru Komunitateko

eta haren erakunde autonomoetako Negoziazio Mahai Orokorrean negoziatu eta onets daitezela 2016. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean baimendutako ordezkatzetasean sar daitezken lanpostu huts guztiak.

Halaber, irakasleen sektoreari dagokionez, bidezkoa da esatea 2015eko azaroaren 6an Hezkuntza Departamentuan Mahai Sektoriala bildu dela, eta hartan Administrazioak adierazi duela hemendik gutxira Negoziazio Mahai Orokorrean bilera bat egingen dela, irakasleen sektoreari dagokion enplegu eskaintza publikoko lanpostuen gutzitako kopurua aztertze aldera; gainera, azaldu da aipatutako Mahai Orokorreari eskatutako zaiola irakasleen Mahai Sektorialaren esku utz dezala enplegu eskaintza publikoan sartu beharreko lanpostuen gutzitako kopuruaren banaketa, kidego, espezialitate eta hizkuntzaren arabera.

Azkenean, erabaki da ezen kasuko Negoziazio Mahai Orokorrean onesten bada irakasleen Mahai Sektorialaren esku uztea lanpostuen kidego, espezialitate eta hizkuntzen arabera banaketaren negoziazioa, azken horretan jarraituko dela negoziazioa, irakasleen enplegu eskaintza publiko partziala 2016ko lehenengo egunetan onetsi ahal dadin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria María José Beaumont Aristu

Galdera, sinbologia frankista erretiratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, sinbologia frankista erretiratzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko galdera egin du sinbolo frankistak kentzeko jarduketa orokorreari buruz (9-15/PES-00096). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariari ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak, jakina, konpromisoa dauka frankismoaren sinboloak kentzeari buruzko legedi indarduna betetzeko. Legedi indardunetik beretik heldu den erantzukizun bat izateaz gainera, akordio programako 3.3 puntuan jasotako konpromiso bat ere bada: "Erregimen frankistarekin zerikusia duten sinbolo eta toponimoak kentzea eta erregimeneko buruzagien ohorezko aipamen oro ezabatzea". Halaber, alderdi garrantzitsua da memoriari buruzko politika publikoen planteamendu demokratiko baten ikuspuntutik.

Horri dagokionez, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia izendatu zenetik denbora gutxi iragan den arren eta memoria historikoaren arloaz arduratuko den atalburua oraindik izendatu gabe dagoen arren, Gobernu

honek jada urrats batzuk egin ditu planteatutako galderaren ildoan.

Zehazki, 2016rako aurrekontuen proiektuan kontusail bat ezarri dugu Memoria Historikoaren Legea betetzetik heldu diren obretarako, halako moduz non, besteak beste, jarduketa bat egin ahal izanen baita Nafarroako Jauregiko frontoian, zeina EH Bildu parlamentu-taldeak erregistratutako idazkian aipatzen baita. Halaber, urrats batzuk egin ditugu Vianako Printzea Erakundeak informata dezan frontoi horretan ageri den gurutze-erramuduna kentzeko hartu beharreko neurri zehatzei buruz.

Halaber, aurrekontuen proiektu horretan azterlan eta lan teknikoak egiteko kontusailak badaude, bai eta bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen balioak sustatzeko programetarako ere, eta haien bidez, besteak beste, Nafarroan dauden sinbolo frankistekiko buruzko katalogoa bezalako lanak egin ahalko dira.

Gobernu honek Nafarroako espazio publikoa demokratizatzeke erabakiarekin aurrera egiteko asmo tinkoa dauka, eta frankismoaren eta ideiak defendatzeko indarkeriaren erabilera gorai patzen duten gerra zibileko sinboloak kentzeko presako lanari ekinen dio. Espazio publikoa bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideekiko errespetuaren balioei egokitze hori presako lana da, eta Gobernu hau jada horretan ari da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Galdera, jakitekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak zinemagintza sustatu eta garatzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak zinemagintza sustatu eta garatzeko. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer neurri ezartzeko asmoa duen –fiskalak, prestakuntzakoak, beste herrialde batzuekiko lankidetzaren arlokoak, eta abar–, zinemagintza sustatzeko eta garatzeko (9-15/PES-0097). Hauxe da eman beharreko informazioa.

Zinema eta ikus-entzunezko arteak sustatzearekin lotutako politika bi bidetatik eramaten du aurrera Nafarroako Gobernuak:

1. Administrazio errotik, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuan, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez (Kultur Ekintza Zerbitzua, Kultura Lankidetzaren eta Berrikuntzaren Atala). Bide horretatik honako hauetan egiten da lan:

- Zinemaren eta ikus-entzunezkoen ekoizpe-nerako laguntzak.
- Baluarte Fundazioarekin batera, “Punto de Vista” Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia antolatzea.
- Sektoreko profesionalei aholkua ematea.

2. NICDO sozietate publikoaren laguntza, Nafarroako Filmotekaren bitartez eta Navarra Film Commission-en bitartez.

Zinema-jarduerak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak ezarritako neurriei dagokionez, honakoak aipatu behar ditugu:

NEURRI FISKALAK

Hilabete hauetan, lana zentratu da Nafarroan abian jarri den araudiari buruz informatzean. Horri

dagokionez, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak mintzakide bakar bat jarri du sektorearen esku, aholku hori modu eraginkorrean emate aldera.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legean 2014ko amaieratik Nafarroan dagoen pizgarri fiskal lehiakorra bultzatze aldera, 2016ko lana izanen da pizgarri hori sustatu eta ukitutako eragileei haren funtzionamendua azaltzea. Horretarako, ekoizleei eta eragile egituratzaileei arreta pertsonalizatua eman behar zaie, eta hori Navarra Film Commission-en bidez egiten da, Nafarroako Zerga Ogasunarekin batera lan eginez.

Pizgarri fiskalak azaltzeko eginkizun horretan –zinema-ekoizpenetako eta ikus-entzunezko obretako inbertsioetan kenkari bat aplikatzean dautza– 2016an islatuko diren ekintza batzuk eraman dira aurrera; honakoak, besteak beste:

- Informaziorako materiala sortzea.
- Informazioa emateko jardunaldiak egitea; berriena urriaren 29an Tuteran egin da, “Nafarroa eta zinema; inbertitzeko aukera bat” izenburupean.
- “Navarra Capital” eta “Negocios de Navarra” bezalako hedabide espezializatueta informazioa argitaratzea ikus-entzunezko produktiorako pizgarri fiskalei buruz.

Arlo fiskalean jarritako azpimarra horrekin batera, Navarra Film Commissionek lan egiten du nazioko eta nazioarteko produktoreek egiten duten gastutik ahal den gehiena gure lurraldean egin dezaten. Zinemarako laguntza emateko bulego honek gure erkidegoan aurrera eramaten diren ikus-entzunezko proiektuak garatzeko lana kudeatzen du, gure lurraldera errodajeak ekartzeko lanak egiten ditu eta sektoreari buruzko kontsulten inguruko aholkua eta erantzunak ematen ditu. Bai bulegoa, bai errodajeak egiteko lurraldea sustatzeari dagokionez, era askotako ekintzak egiten dira; honakoak, besteak beste:

– Errodajerako laguntza eman deneko proiektuetan, azkenean Nafarroan filmatu nahiz autonomia erkidegotik kanpo filmatu, eskatzen da kreditu-tituluetan kasuko logotipoak jar daitezela.

– Lankidetzahitzarmenak egiten dira lurraldeetan errodajeak egin daitezela sustatzeko. Une hauetan, Iruñeko Aireportuaren eta “Nafarroa,

Zinemako Lurralde” film laburren lehiaketaren arteko lankidetzak hitzarmen bat egiten ari gara, Nafarroaren sustapen turistiko eta ikus-entzunezkoa egiteko. Esparru horretan, produkzio mintegi bat ere egiten da.

– Lankidetzak batzuk ezarri dira Nafarroako Ekoizleen Elkartearekin (NAPAR), hura haz adin eta aktiboki gara dadin. Horri dagokionez, produkzioari buruzko dossier bat egiteko laguntza ematen ari gara.

– Etengabe gaurkotzen ditu errodajeen balizko kokapenak. Puntu honetan, oso garrantzitsua da Turismo Zuzendaritzarekiko lankidetzak; esate baterako, Turismo libilbideak sortzeko proiektuan.

– Publizitate eta lankidetzak ekintzak egiten ditu hedabide espezializatuekin barnner, iragarki edo publizitate bitartez Nafarroa nazioan eta nazioartean errodajeak egiteko lurralde gisa salteko.

PRESTAKUNTZAKO NEURRIAK

NUP aztertzen ari da titulu bereki bat ezartzea “Ikus-entzunezko enpresetako produkzioaren eta zuzendaritzaren arloko prestakuntza” izenarekin. Horren barrenean sartuko litzateke prestakuntza ematea ikus-entzunezko enpresak sortzeari eta kudeatzeari buruz, bai eta ikus-entzunezkoen produkzioaren arloko prestakuntza ere. Ikastaroa, zeina NUPeko pertsona baten zuzendaritza akademikoaren pean egiten baita, 2016/2017 ikasturtean zehar ezarri ahalko da. Une hauetan, alderdi akademikoak definitzen eta zehazten ari dira; esate baterako, tituluaren edukiak, iraupena eta antolaketa.

JARDUERA ZINEMATOGRAFIKOEN BULTZARDA

Nafarroako Parlamentuak zinemari buruzko honako deialdiak egin ditu:

- Nafarroan egiten diren zinemagintzako jaialdi eta lehiaketak antolatu eta garatzeko laguntzen deialdia.
- Film luzeen eta produkzioarako laguntzak (urte anitzeko izaera dute).
- Film labur eta ertainen produkzioarako laguntzak (urte anitzeko izaera dute).

Jaialdi eta lehiaketa zinematografikoei dagokionez, 2015eko deialdian laguntzak bideratu dira Zinema eta Emakumeak Nazioarteko Erakusketarako, Fanfestival jaialdirako, Tuterako “Ópera Prima” jaialdirako, “Nafarroa, Zinemako Lurralde” film laburren lehiaketarako eta Iruñeko Zinema

Jaialdirako. Guztira, 30.000 egin dute laguntza horiek.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak zuzenean antolatutako ekitaldi zinematografiko gisa, nabarmentzekoa da Punto de Vista Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia, zeinak 2016an hamargarren urteurrena beteko baitu. Zalantzarik gabe, jaialdia finkatuzat emateko edizioa da.

1.378 film erregistratu dira aurten, 86 herrialde-takoak, film luze eta film labur dokumentalen artean, X. edizioko hautapen-prozesuan parte hartzeko. Zenbateko hori izen-emateen errekor berri bat da jaialdiaren historian, eta IX. edizioan lortutako zifra positiboak gaituzten ditu; izan ere, orduan 1.237 obra aurkeztu ziren sekzio ofizialean parte hartzeko. Aurkeztutako filmen artean, jaialdiak ez ditu hogeitau baina gehiago hautatzen lehiaketan parte hartzeko. Aurreko edizioetan, 700 inguru film dokumental aurkezten ziren; horrenbestez, joera positiboa berretsi da, gorantz jarraitzen baitu, eta film kopuru bikoitzera iristeko bidean. Datu hauek agerian jartzen dute zeinen ona den jaialdiaren osasuna, eta nazioartean nolako aitorpena duen.

Hamargarren jaialdiaren ospakizunari gehituko zaio krisiaren ondorioz galdutako urtea berreskuratzea; izan ere, orduan jaialdia desageratzeko arriskuan egon zen, eta horrek jaialdiaren adiskideen eta harekiko arima sentikorren artean elkartasunezko erreakzio bat eragin zuen, munduko bazter guztietatik. Hori dela eta, eta zauri hori oraindik ere jaialdiko bisitari ugariaren eta haren hurbilekoak direnen buruan geratu denez, etengabe galdetu ohi dute ekitaldiaren osasunari buruz. Horren erantzun irmoa datorren edizioarekin iritsiko da.

Jaialdia urterokoa izatea berreskuratzearekin, eta hamargarren urteurrena ospatzearekin, jaialdia behin betiko finkatuta geratuko da.

Finkatuta geratu da, halaber, Baluarte plaza berria izanen dela jaialdiko bulegoaren egoitza eta bulegoa zinema aste horretan zehar. Urteurrenaren ospakizuna, programan DENBORA kontzeptuak markatuko du, horixe baita ospatuko dena: jaialdia hasi zenetik 10 urte iragan direla.

Prestakuntza-jarduerei dagokionez, Punto de Vista jaialdian askotariko saioak biltzen dira, nola baitira maisu-eskolak, tailer eta mintegiak; horiek Iruñera zinemagile interesgarriak dakartzate, Punto de Vista-ren esparruan lan egiten dutenak. Horri dagokionez, zenbait hitzaldi edo aurkezpen programatu dira zinema dokumentalarekin lotutako gaien inguruan.

BESTE LURRALDE BATZUEKIKO LANKIDETZA

Navarra Film Commissionen, "Punto de Vista" Zinema Dokumentalarnen Nazioarteko Jaialdiaren eta Nafarroako Filmotekaren bidez eramanen dira aurrera.

NAVARRA FILM COMMISSION

– Aurreikusita dauka lokalizazioekin lotutako azoketara joatea; besteak beste, honako hauek: FITUR, FOCUS, The location production event edo AFCI Locations Show.

– Parte-hartze aktiboa dauka nazioarteko eta Europako film commissionen sareetan, errodajeak erakartzeak dauzkan lurralde-abantailen berri nazioartean emateko. Spain Film Commission eta European Film Commission Network erakundeetako bazkide-harremani eusten zaie; izan ere, erakunde horiekin zuzeneko lankidetzan jarduten du nazioarteko jaialdiak bertatik bertara eta ordezkariak gisara antolatzen, bai eta erakundeen batzar nagusietan ere.

– Asamblea General EFCN

– Asamblea General SFC

– Berlinale: European Film Market

– Cannes; Marché du film

– Donostia Zinemaldia; The Industry Club

– AFCI Cineposium

– MIPCOM

– American Film Market

– Spain Film Commissionen bitartez, 2013tik, lanean ari da Casa de la India erakundearekiko lankidetzak hitzarmena egiteko, bi lurraldeetan ikusentzunezkoen industriari sustatze aldera.

– SFCrekin batera, Juego de Tronos hirien sarea sortzen hasi da (urriaren 30ean), eta haren lehenengo jardunaldi bat egin da Navarra Film Commissionek antolatua, Tuterako Ópera Prima jaialdiaren barruan.

NAFARROAKO FILMOTEKA

– Lankidetzak hitzarmenak egin dira zinema beren herrialdeetan zabal dadin sustatzen duten entitate ofizial eta partikularrekin. Gehienekin aldizkako lankidetzak-harremanak izaten dira. Honako hauek dira: Taipeiiko Bulego Ekonomiko eta Kulturala (Taiwan), Centro di Studi sul Cinema Italiano, Noruegako, Poloniako (Kultura Polakoaren Institutaren bitartez), Txekiar Errepublikako, Mexikoko eta Errusiako enbaxadak, Errumaniak Bilbon duen kontsu-etxea eta abar.

– 2015eko azarorako Afrikako zinemaren erakustaldi bat programatu da, Afrika ezinbestekoa da. Hartan parte hartuko du, besteak beste, Hegoafrikak Espainian duen enbaxadak. Halaber, saio bat programatu da Foco Punto de Vista programaren barruan; hartara, Baionako L'Atalante zinemako gerentea etorriko da, PDV Jaialdiaren eta Frantziako hiri horren arteko lankidetzak hitzarmenari esker.

– 2015eko abendurako, Eran Riklis zinema-egile israeldarrari buruzko atzera begirada bat aurreikusi da, non Israelek Espainian duen enbaxadak laguntzen baitu.

– Nafarroako filmoteka, une hauetan, 2016rako programazio bat egiten ari da, Bearneko probintziaren (Pirinio Atlantikoak) laguntzarekin, POCTEFA "AcademICE" proiektuaren barruan. Proiektu hori Baluarte lideratu du Paueko Palais Beaumontekin batera.

– Aurreko urteetan bezala, Nafarroako Filmotekak harrera egin dio Donostiako Udaleko Kultur Patronatutik programatzen den zikloa, zeinaren argitalpenean ere parte hartzen baitu. Ziklo horretan Valentziako Filmotekak (IVAC) ere parte hartzen du. Zikloa Krzysztof Kieslowski zinemagileari buruzkoa da.

– Nafarroako Filmotekak, halaber, konpromisoa hartu du Poloniako Kultur Institutuarekin zinema garaikide polakoaren programazio bat eskaintzeko 2016ko lehen seihilekoan zehar.

– Urtarrilerako Indiako zinemari buruzko ziklo bat prestatzen ari da; hartan, Asiako herrialde horrekin lotutako entitateen batekin batera lan egin nahi da. Vicente Ferrer da proiektu horretan inplikaturik dauden elkarteetako bat.

– Halaber, hitz eginda dago, baina gauzatzeko dago, bilera bat egitea Tabakalerako (Donostia) eta Euskadiko Filmmategiko programazio-arduradunekin, zeren orain hasiko baitira zinema-erakustaldiak espazio horretan egiten, eta horietako batzuk Euskadiko Filmmategiak sustatuak baitira.

– Eta programazioarekin eta kopiak lortzearekin lotutako beste gai batzuetarako (Nafarroako Filmotekaren programazioaren gai nagusia da), ohiko eta aldizkako hartu-emanak dauzkagu Espainiako gainerako filmotekekin, nagusiki Espainiako Filmotekarekin, Euskadiko Filmmategiarekin, Kataluniako Filmotekarekin, Murtzia Erregioko Filmotekarekin, Andaluziako Filmotekarekin, Zaragozako Filmotekarekin, CGAIrekin eta abarrekin.

PUNTO DE VISTA JAIALDIA

– Azkeneko urteetan, jaialdi honek lankidetzan dihardu ikus-entzunezkoen ikaskuntzak ematen dituzten Espainia osoko unibertsitateekin. Espainiako sei unibertsitate eta zinema-eskoletako ikasleak gonbidatzen dira jaialdiko saio guztietarako doako akreditazioa izan dezaten. Zehazki, oro har ikus-entzunezkoarekin lotutako ikastaroak antolatzen dituzten honako zentro hauek dira:

- ECAM, Escuela de Cinematografía y del Audiovisual de la Comunidad de Madrid.
- Máster en Teoría y Práctica del Documental Creativo (Universitat Autònoma de Barcelona).
- Universidad Carlos III de Madrid.
- Nafarroako Unibertsitatea.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- PV/EHU (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea).

– Punto de Vista Jaialdiak Espainiako Kultur Ekintzaren laguntza bat jaso du; haren bidez, jaialdia ekoizteko egindako bidaiak finantzatzen dira (PICE Programa).

– Jaialdiak sarean lan egiten du mundu osoko zinema dokumentaleko jaialdiekin, eta haiekin ira-

garki-trukeak egiten ditu katalogoetarako, informazioarako eta lan-esperientzietarako. Urte osoan zehar profesionalen arteko topaketetan hartzen da parte, eta hasieratik Jaialdiak lankidetzan jardun du, bestak beste, Tabakalerarekin, Goethe Institutuarekin, Japan Foundationekin, Fundación Cultural Hispano Brasileñarekin edo Institutu Frantsesarekin.

Adibidez, jaialdiko iraganeko edizioan, Euskal Kultur Erakundearekin lan egin genuen Chez les Basques izenburupean programatutako ziklorako. Ziklo hori, zeinak Iparralden bisitan egon diren sortzaile handien zinema dokumentala jaso baitzuen, nola baitira Lumiere anaiak edo Orson Welles, euskal tradizioei eta kulturari buruzko film dokumentalak jaso zituen. Horren inguruko mendeurrena eta Iparralden errodututako dokumentalen erakusketa 2015eko efemeridea izan ziren. Programa horretarako Euskadiko Filmategiarekin, Etxepare Institutuarekin, Institutu Frantsesarekin eta EKErekin batera lan egin genuen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Kultura, Kirol eta Gazteria kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Galdera, Nafarroako Kutxako Patronatuaren osaerari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Kutxako Patronatuaren osaerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2015eko urriaren 8ko 1513 sarrera-zenbakiarekin erregistratua, jakin nahi baitu ea Nafarroako Gobernuak zer

aurreikuspen daukan egungo patronatuko kideek bertan jarraitzeari dagokionez (8-15/PES-0098). Hau erantzun dio Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak:

Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren egungo estatutuek 11. artikuluan arautzen dute patronatuaren osaera: bederatzi kidek osatzen dute, eta horietako bost Nafarroako Gobernuak izendatu behar ditu.

Nafarroako Gobernuaren 2013ko uztailaren 4ko eta 2013ko urriaren 16ko erabakiez Gobernuak patronatuko kideak izendatu zituen.

Estatutuetan kargugabetzerako aipatzen diren arrazoietatik bakarria ere ez denez gertatu eta kideen izendapena atzeraezina denez, aurreikusten den bakarria da Nafarroako Kutxa Banku Fun-

dazioaren estatutuak fidelki eta zorrotz betetzea, egungo kideek jarraitzeari dagokionez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an.

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:
Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, Nafarroako Gobernuko kideen ondasun aitortzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuko kideen ondasun aitortzei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

2015eko urriaren 8an, Nafarroako Parlamentuko Erregistroan Nafarroako Alderdi Popularreko parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idazki bat sartu zen, non azaltzen baitu, batetik, Goi Kargudunen Batera-zintasunei buruzko Foru Legeak ezartzen duela Nafarroako Gobernuko kideek bi hilabeteko epea dutela, karguaren jabetza hartzen dutenetik aitzina, beren ondasunei buruzko aitortpena aurkezteko Beltran andreak baieztatzen du ezen, konstante hartuta legegintzaldi honetan jabetza hartzeko ekitaldia iragan uztailearen 23an egin zela, gobernuko kide eta goi kargudun guztiek irailaren 23a baino lehen jakinarazi behar zituztela, lege horren arabera, beren ordainsariak, ondasunak eta ondare-eskubideak. Baieztatzen du, halaber, legeak ezartzen duela bi hilabeteko gehieneko epea orain dela zenbait egun iraungi zela, eta Nafarroako Gobernuko inork ere ez duela publiko egin oraindik bere ondasunen aitortpena.

Bere idazkiari amaiera emateko, honako galdera hauek egiten ditu: "Nafarroako Gobernuak nola justifikatzen du Gobernuko inork ere egin ez izana urriaren 8ra bitarte –alegia, goi kargudunen bateraezintasunei buruzko foru legeak ezarritako gehieneko epea 15 egunez gaindituta– bere ondasunen aitortpena?" "Noiz eginen dute?"

Bada, hauxe da erantzuna:

Lehenbizi, gogorazi beharra dago zein den arlo honetan indarrean dagoen arau-esparrua; gero, azaldu beharra dago zein den Goi Karguen Jardueren eta Interesen Erregistroaren funtzionamendua.

Alde batetik, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeko 13.b) eta 63. artikuluek ezartzen dute goi karguek aurkeztutako jarduera, ondasun eta eskubideen aitortpenetan jasotako datuak argitaratu beharrekoak direla, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko goi-kargudunen ordainsarien, jardueren eta ondasunen aitortpena eta argitalpena arautzen dituen urtarrilaren 23ko 6/2013 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

Bestalde, bai 6/2013 Foru Dekretuak, 2. artikuluan, bai Nafarroako Gobernuko Kideen eta Nafarroako Foru Administrazioiko Goi Karguen Batera-zintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeak berak, 12. artikuluan, ezartzen dute legez jarduera, ondasun eta eskubideen aitortpenak aurkeztu behar direla jabetza hartu eta goi kargua uzten den egunetik hasi, hurrenez hurren, eta hurrengo bi hilabeteko epean, bai eta urtero beste aitortpen bat ere, ekainean zehar.

Behin aitortpen horiek aurkeztuta, Goi Karguen Jardueren eta Interesen Erregistroak haiek aztertu eta berrikusiko ditu. Formazko akatsik aurkituz gero, interesdunei eskatuko zaie haiek zuzen dituzaten, eta ondoren Nafarroako Gobernuaren Intereneteko web atarian argitaratu beharreko dokumentuak egiten ditu. Horretarako, argitaratzekoak diren datuak hautatu eta kasuko dokumentuan sartzen dira, gero argitara daitezten. Lan hori osatzen den une horretantxe Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, bera baita Goi Karguen Erregistroa kudeatzeko ardura duena, modua edukiko du Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza Nagusiari bidaltzeko argitaratuko den informazioa, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Lege-

an xedatuaren arabera. Lege horrek, halere, ez du ezartzen zein izan behar duen argitalpen horren hasierako edo/eta amaierako data, ez eta zenbat denboraz egon behar duen argitaratuta jarduera, ondasun eta eskubideen aipatutako aitortpenak.

Hala eta guztiz ere, puntu honetan nabarmendu beharra dago aurreko legegintzalditik heldu den jokabidea dela aitortpenak bereiz ez argitaratzea, eskuragarri dauden neurrian, baizik eta itxarotea aldi berean egindako izendapenen multzo bateko guztiak eduki arte, egungo Nafarroako Gobernuo kideei dagozkien aitortpenekin gertatu den bezala, edo, esate baterako, urteko aitortpen guztiak prest eduki arte itxarotea, 2014ko ekaineko urteko aitortpenekin egin zen bezala, guztiak aldi berean argitaratu baitziren urte hartako azaroaren 4an.

Araudi indardunari begiratuta, nabarmendu beharra dago Nafarroako Gobernuak ez duela urratu bere kideen aitortpenen kasuko datuak argitaratzeko daukan betebeharra, haiek karguaren jabetza hartu ondoren, honako arrazoiak direla eta:

Lehen. Erreferentziako araudian aipatzen den bi hilabeteko epe luzaezina goi karguei beren aitortpenak Goi Karguen Jardueren eta Interesen

Erregistroan aurkezteko ematen zaiena da, eta ez haiek argitaratzeko muga-eguna. Puntu honetan, nahitaez esan beharrekoa da 2015eko uztailaren 23an egindako izendapenen ondotik, Gobernuo kide guztiek, salbuespenik gabe, beren aitortpena aurkeztu dutela horretarako lege ezarritako epearen barruan.

Bigarrena. Arestian aipatu dugun bezala, araudi indardunak ez du ezartzen zein izan behar duen hasierako edo/eta amaierako data goi karguen jarduera, ondasun eta eskubideen aitortpenei buruzko datuak argitaratzeko.

Hirugarrena. Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Gobernuo kideei buruzko informazioa 2015eko urriaren 16an argitaratu zen, Goi Karguen Erregistroak nahitaezkoak diren aipatutako lanak egin ondoren, aginduzkoak diren datuak argitaratzeari buruzkoak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

